

ZAA

ZORROTZ MORROTZ

66. ZBKIA 2020ko AZAROA

MAIALEN MIERA

ATLETA

ZORROTZAKO MUSIKA ESKOLA

Zorrotza

æk

Zalbidea 7
94 441 49 20
zorrotza@æk.eus
www.æk.eus

**AEKn, IRAKASLE BATEK
BIK BESTE BALIO DU.**

Irakasten daki eta
ikas dezazun nahi du.

**UN/A PROFESOR/A DE
AEK VALE POR DOS.**

Sabe enseñar y
quiere que aprendas.



Janire Urrestarazu Aizpurua, AEK-ko irakaslea.

Zorrotza AEK euskaltegia

MATRIKULATU!!

09:30-11:30:
A2, B1, B2 eta C1

17:00-19:00:
B2 eta C1

BEKAK (HABE, BFA eta Bilboko Udala)

Zalbidea 7 behea,

944414920 - 663080976 • zorrotza@aek.eus

Gure tokiko-merkataritza babestu dezagun!

Egoera zail honetan, inoiz baino gehiago, elkartasuna eta enpatia emateko garaia da. Garrantzitsua da, halaber, gure auzoko merkataritza eustea, eguneroko bizitza garatzeko baliabideak ematen dituen hurbileko saltoki txiki horri, hain zuzen ere. Eta testuinguru horretan sartzen da ostalaritzako gremioa, arestian aipatutako harremanaren funtsezko faktorea baita. Ez dezagun gure auzo-merkataritza erortzen utzi. Zorrotzak haiek gabe asko galduko bailuke, bai zentzu sozialean, bai ekonomikoan.

Auzo Mugimendua, oro har, egoeraren larritasunaz jabetzen da, eta horregatik, une oro elkarbizitzaren, osasunaren, hezkuntzaren, gizarte-politiken eta abarren oinarritzko zutabeak defendatzeko deia egiten dugu. Auzo Elkartean ahal dugun neurrian jarraitzen dugu lanean, eta informazioa ematen saiatzen gara, batez ere sare sozialen bidez.

Egun batzuk lehenago, metroa Zorrotzara iristeko aukera ematen duten albisteak agertu dira. Urte asko dira elkarte honetatik behin eta berriz esaten dugula lurpean dagoen Feve linea dela metroak Enkarterrirako duen bide naturala. Albiste horiek gartzeari eta ondoren zehazteari oso lotuta egongo gara hemendik aurrera.



HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!!

ZM zure e-postan jasotzeko, bidali mezu elektronikoa bat
zmorrotz@gmail.com
helbide elektronikora, gaiaren laukian
"harpidetza" jarri



Zorrotzako kultur aldezakaria
66. zenbakia. 2020ko azarora

Argitaratzen du:

Zorrotzako Euskal Txokoa

AEK euskaltegia

Zalbidea, 7 behea

48013. Zorrotza. Bilbo

Emaila: **zmorrotz@gmail.com**

f facebook.com/ZorrotzMorrotz

W [@zorrotzmorrotz](https://twitter.com/zorrotzmorrotz)

Koordinazioa: Naroa Peña

Diseinua eta maketazioa:
amc diseinua

Erredakzioa:

- Ibai Barrios
- Aina García
- Igor Gutiérrez
- Aitor Marín
- Naroa Peña
- Iratxe Pérez
- Zuriñe Vila

Zuzenketak: Iñigo Ramírez de la Piscina

Laguntzaileak:

- Karlos Rodríguez
- Manu Cobo
- Asier Urkiza
- Iratxe Zuloaga



Zorrotz Morrotz aldezakaria Bilboko udalaren diru-laguntza jaso du baina ZM da edukaren erantzule bakarra



ZORROTZA F.C.
kirolarekin,
auzoarekin eta
euskararen alde!



BAR VENECIA

Espezialitateak:
Kafea, tortilla, tortilla beteak
eta bestelako pintxoak
Abaro estrala IO
AUPA ATHLETIC


**AUTO ESKOLA
KAIKU**



Zorrotza Kastrexana, 1
Tlfno: 94 427 88 10



Afariak ostirala
eta larunbatetan
Etxeo berezitasuna:
katxopoa.
Telefonoa: 944 415 416
Zorrotzabaso, 13
ZAIZPI LANDA



Aitor Marin

Zorrotzako ostalariak deituta, pasa den azaroaren 14an, mila pertsona baino gehiago manifestazioan atera ziren Santer tabernetatik Azoka plazaraino, Eusko Jaurlaritzak osasun arrazoiengatik ezarritako ostalaritzaren berehalako itxieraren aurrean “berehalako laguntzak” eskatzeko. Sektoreak laguntzak exijitzen ditu, eta “berehalakoak”, pandemiaren lehen olatuan hitz emandako laguntzak ez direlako “inoiz iritsi”.

Manifestazioaren amaieran irakurritako agiri batean, ostalariak bidegabeba eta neurritz kanpokatutako jo zuten haien lokalen itxiera. Izan ere, haien ustez “arazoa tabernetatik harago doa, eta kutsatzeko beste foku batzuk badaude, baina horiei ez zaie eskatzen ostalariak desinfekzioan ematen duten denbora eta dirua”. Pandemia honen errudun gisa seinatuta sentitzen direla adierazi dute Zorrotzako ostalariak, eta Eusko Jaurlaritzari leporatu diote “negozioak ixteko arriskuan dauden familia askoren etorkizunarekin jolastea”. Gainera, iruzur egitea leporatu izana aurrepigitu diote Urkullu lehendakariari: “beste edozein herrialdetan, horrelako adierazpen batzuen ondoren, dimisioa eman beharko luke”, adierazi zuen bozeramaile batek.

Ohar horretan bertan, emandako babesagatik eskerrak eman dizkie kolektiboak auzoan denda txikiak dituzten eta kaltetuak izan diren beste gremio batzuei. Bai eta auzo osoari ere oro har emandako laguntzagatik, “orain jasotzen ari den babesagatik, eta lehen olatua igaro zenetik bertako merkataritzari eta ostalaritzari auzokideek emandako babesa izugarria” izan zelako.

Horren erakusgarri izan zen azaroaren 14ko manifestazioa bera, oso jendetsua eta ostalaritza-banatzailen ibilgailuak buru izan zituen. Herriko saltoki gehienek itxi zuten mobilizazioa joateko eta oso jende anitza bildu zuen.

Manifestazioak segurtasun neurri sanitario guztiak bete zituen, eta Zorrotzako elkarte eta talde ugari babestu zuten ostalariak plazaratutako komunikatua: Zorrotz Morrotz aldikari honek eta Zorrotzako Euskal Txokoak, AEK-k, Auzo Elkartek, Merkatarien Elkartek, Gure Lurrak, Zorrotza F.C. eta Zazpi Landa bezalako kirol taldeek, Futbol zaletuen taldeek, Jai Batzordeak edo Txinbotarrak Konparsak, besteak beste. Esparru politikotik, Zorrotzako EH Bilduk ere manifestazioan parte hartzeko deia egin zuen, aurreko egunean bere sare soziale-tan argitaratutako ohar baten bidez.

Osasun publikoaren alde eta egoitzaren titulartasun publikoa eskatzeko mobilizazioak burutu dituzte

Zorrotz Morrotz

Pandemiaren kudeaketak mobilizazio ugari eragin ditu, eta Zorrotzara ere heldu da olatu hori. Azaroaren 4an eta 11n bi elkarretaratze egin zituzten anbulatorioaren aurrean, sindikatu guztiek osasun publikoa defendatzeko Osakidetzan deitutako grebaren alde. Elkarriketatuek osasun publikoan inbertsio gehiago eta lehen arretako baliabide gehiago eskatu zituzten, eta murrizketa eta pribatazioen aurka egin zuten.



Lehenago, irailaren 29an, adinekoen egoitzako langileek deituta, eta Taldeon Koordinadoraren eta Auzo-Elkartearen babesarekin, zahar-egoitzaren titulartasun publikoa eskatzen zuen beste elkarretaratze bat egin zen, non bertako langileen lan-eskubideak ere aldarrikatu zituzten bertaratutakoek.

17 Arigune Zorrotzan Euskaraldian gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan euskaraz egiteko

Zorrotz Morrotz

Hizkuntza ohiturak aldatzeko helburu duen ariketa sozial erraldoi hau oso egoera latzean etorri zaigu aurten. Hala ere, Zorrotzako datuak ez dira batere txarrak izan eta azaroaren 20tik martxan dagoen Euskaraldiko 2. edizio honetan auzoan 17 Arigune (aurtengo berritasuna) daude: AEK euskaltea; Institutua eta Fray Juan eta Zazpi Landa eskolak, Auzoka Komunitate Zentroa, Zorrotzako Haur-

gunea, Zorrotzako Gaztegunea, Txinbotarrak Konpartsa, Eroski, BM, Saiz Okindegia, Bioleta Munduan, MetolArgi denda, Oreka Fisioterapia eta Nutrizioa, eta zori-tzarrez egoera soziosanitarioa dela eta itxita dauden El 10 de Fray Juan, Askabide eta Madness tabernak. Animo Zorrotzako euskaldunak, eta Euskaraldia pasa ostean ere, egin gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan!



Plater konbinatuak, hanburgesak, oilasko erreak...

FRAI JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98

Zorrotzako labea

Zugandik gertu

Zorrotza Kastrexana errepidea, 34
Tfn. 94 441 09 71
Zorrotza - 48013 BILBO

FARMAKOTEGIA
SUSANA
URRITIKOETXEA

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tfn. 94 441 61 46

Eusko Jaurlaritza metroaren 4. linea Zorrotzara zabaltzea aztertzen ari da

Zorrotz Morrotz

Hala adierazi du El Correo egunkarian argitaratutako albiste batek, eta Eusko Jaurlaritzak EH Bilduren galdera bati bidalitako dokumentazioa aipatzen du informazioaren iturritzat. Errekaldeko erdigunetik eta Zorrotzatik igarotzeko aukerak funtsezkoak dira EH Bildurentzat, eta ingeniariaren txostenak trazadura kontuan hartuko zuela ziurtatzeko galdetu zuen alderdi subiranistak proiektuaren egoeraz.

Bi hilabete barru emango du jakitera Eusko Jaurlaritzak behin betiko ibilbidea zehaztuko duen informazio-azterlanaren edukia, eta aipatutako albiste horrek adierazten duenez, metroko 4. linea Iralara eta Errekaldera zabaltzeaz gain, Zorrotzara eta Alonsotegira ere zabaltzeko aukera indarra hartzen ari da. Dirudienez, teknikariak argi dute kontuan hartu beharreko aukera dela, bikoiztasunak saihesten dituelako, FEVEko trenbide zaharra aprobetxatzen baitu. Gainera, Enkarterriekin komunikatzeko bide bat berreskuratzeko aukera ematen du: izan ere, proiektuak Alonsotegin kotxetegiak ezartzea aurreikusten du. Gutxienez 10 minutu irteera-maiztasuna eskaini ahal izateko, tren gehiago behar dira eta Bilbon jada ez dago toki nahikorik; beraz, Irauregin kokatuko lirateke kotxetegi berriak. Halaber,

Estatuko Gobernutik Eusko Jaurlaritzara transferitu beharko litzateke FEVEko trenbidearen kudeaketa, baina hori ziurtzat jotzen da, bi gobernuen artean jada hitzartuta baitago.

Egia da egungo egoera ekonomikoak proiektua gauzatzea zailduko duela, eta foru diputatuak adierazi duenez, metroko 4. linea ez dago bere gobernuaren "proiektu estrategiko" artean; baina beste datu batzuk baikorrak dira, hala nola Zorrotzan eskariaren azterketa egin izana, eta emaitzak "oso positibotzat" jo dituzte arduradunek.

Udalak FEVE lurperatzen hasteko eskatu dio Estatuko Gobernuari

Bestalde, Udalak 250 mila euroko partida sinbolikoa bideratu du 2021eko aurrekontuan FEVE lurperatzeko. Inbertsioa, guztira, 35 milioi eurokoa da, baina gainerakoa hurrengo urteetan esleituko da. "Proiektua gauzatzea ez dago gure esku, baina dirua prest dago", adierazi du Asier Abaunza Lan eta Zerbitzuetako zinegotziak, Estatuko Gobernuaren erantzukizunari erreferentzia eginez, oposizioaren aurrean egindako agerraldi batean. Oraingoz, lanak hasi aurretik, beharrezkoa den informazio azterketa onartu du Estatuko Gobernuak, eta horren betearazpen-epea bi urtekoa da.

Zorrotz Morrotz



**Pilotalekuko
lurzorua
egokitze lanak
egin dituzte**

Azoka plazako pilotalekuko lurzorua egokitze lanak amaitu ditu Bilboko Udalak. Irailean bukatu ziren lanetan, instalazioko lurzorua sendotu egin da, arrakalak konponduz, eta, ondoren, gris koloreko erretxinak aplikatuz. Guztira, 58.112 euroko udal-inbertsioa egin da.

Zorrotzako pilotakua birzolatze obrak Auzokide Planaren barruan barruti bakoitzeko bizilagunek lehenesten dituzten jarduketa txikien barruan sartzen dira, eta agintaldi bakoitzean barruti-kontseituetakosoko bilkuretan definitutako proiektuen osagarri dira.

San Inazio eta San José auzuneak

Berrogetahamargarren hamar-kadearen amaieran jende asko etorri zan auzora zegoen behar-raren eskaeragatik. Hasikera etxebizitzaren arazoa zela eta basoan egiten ebien etxeak, gauez, eta behin teilatue montata izande, ezin ebiela bota, garaiko arauagaz.

Handik jaio ziran auzune hauek.

Gero, zazpilanda etxaldea eraiki ebienien auzora jaitsi ziran gehienak. Modu berberan Otxarkoagara edo Basurture joan ziran bisitzen halako gunetatara etorritakoak.

Frankoren gobernuak (edo errejimenekoek) eraikitako etxetara, Jenaro Riestraren (falangeko gobernadore zibila...) eskupekoak, Eskubi eta abar eta abarrekoak.....



**Zorrotzako argazki zaharrak dituzu?
Zure argazkia Zorrotz Morrotzen
agertzea nahi duzu??**

Bidaliguzu e-mail bat zmorrotz@gmail.com
helbide elektronikora gaiaren laukian "behin
batean" jarriz. Mila esker!



*Regalos
Omega*
oparidenda

Frai Juan 19
Omega galeriak
Zorrotza
94 482 03 66

www.omegadetalles.com

Restaurante
Arsenio

Tfno. 94 497 10 03
Clara Campoamor, 6
48013 BILBAO

*Pintxo askotarikoak
Menu bereziak (enkarguz)
Eguneko menua*

LASTER

*Elektrizitatea
elektronika*

- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- ATEZAIN AUTOMATIKOA
- ARGIZTAPENA
- SARE INFORMATIKOAK

TFNO./FAX: 94 442 46 35
LARRIALDIAK: 657 79 57 04
www.electricidadlaster.net

MENDIGAIN ETXALDEA
ZORROTZA 48013

“Euskal Herrian Argentinatik etorritakook oso harrera ona dugu”



NILDA DIARTE

Jaioterria: Buenos Aires (Argentina)

Noiztik: 2003tik Bilbon eta 2013tik Zorrotzan.

Adina: 60 urte.

Lanbidea: Antzerki irakaslea

Paraguain jaio zen arren, Buenos Airesen hazi zen Nilda, eta argentinatzat dauka bere burua. 2001ean Argentina gogor zapaldu zuen *corralitoko* krisi ekonomikotik ihesi, Europara etorri zen. Suitza eta Deustutik igaro ostean, auzoko bizilagun batekin ezkondu zen eta gurean bizi da 2013tik.

Testua eta argazkia: Aitor Marín

Noiz eta zergatik atera zinen Argentinatik?

Erbestealdi ekonomikoa, argi eta garbi. 2001eko “*corralito*”aren krisiaren ondoren, nire seme-alabek lanean hasi gabe ikasten jarrai zezaten, atzerrira joatea erabaki nuen. Zorionez balio izan du, izan ere, biek unibertsitateko ikasketak amaitu ahal izan dituzte. Lanik gabe geratu ondoren, nituen aurrezkiak gastatu behar izan nituen eta horietako zerbait ere korralitoarekin galdu nuen. Dibortziatuta nengoen eta seme-alabak bakarrik hazten nituen inolako laguntza ekonomikorik gabe. Eta migratzea erabaki nuen.

Eta nola iritsi zinen honaino?

Lehenik Bernara joan nintzen, Suitzara. Bertan bizi zen lagun baten senarrak istripu bat izan zuen. Lagunak hiru seme-alaba zituen,

horietako bat txiki-txikia eta gainezka zegoez, laguntza eskatu zidan. Hegazkin-txartela ordaindu zidan, nik ezin bainion gastuari aurre egin, eta bertan lana bilatzen saiatzea ere proposatu zidan. Geroago, Deustun nuen beste lagun argentinarraren bitartez, Bilbora iritsi nintzen. Handik hamabost egunera lan bat lortu eta Txurdinagan bizitzen hasi nintzen.

Non hasi zinen lanean?

Haurrak zaintzen aritu nintzen. Aznarren gobernuaren azken txanpako garaia zen. Pres-takuntza handia izan arren, etorkinok zaintza eta garbketa lanak baino ezin genituen egin, are gehiago emakumea izanda.

Eta nola heldu zinen orduan Zorrotzara?

Maitasunagatik. Hemengo bizilagun batekin ezkondu nintzen.

Gaur egun zertan egiten duzu lan?

Beno, egungo egoera oso zaila da, eta lan-gabezia nago. Argentinan antzerkia egiten nuen. Aktore izan nintzen eta dramaturgia tailerrak ere antolatuta nituen.

Zer da Argentinatik gehien sumatzen duzuna faltan?

Familia. Nire seme-alabak eta nire neba han daude. Oso egoera zaila da oraingoa atzerrian familia dugunontzat. Argentinan ere pandemia gogor ari da jotzen. 7 hilabete daramatzate konfinatuta eta familia osoa funtsezko langileak dira.

Sarri itzultzen zara?

Azken hiru urteetan, urtean behin joan naiz. Behin gabonak amarekin pasatzeko. Hurrengo urtean, zoritxarrez ama hil egin zelako. Eta hurrengora ere itzuli nintzen, baina normalena bi urtean behin itzultzea da.

Eta zer da Euskal Herrian gehien gustatzen zaizuna? Eta Zorrotzan?

Paisaia eta bertako jendea. Izugarri gustatzen zait leihoa ireki eta mendi berdeak ikustea; Buenos Aires aldiz hiri oso laua da eta ez da mendirik ikusten. Zorrotzan guztia oso hurbil dago eta hori oso gustukoa dut. Ez dut ezer faltan, metroa izan ezik.

Zaila egin zitzaizun bertara egokitze-prozesua?

Argentinatik gatozenok hemen oso harrera ona dugulakoan nago. Ez dakit filmengatik edo bere garaian Argentinara joandako euskaldun ugariengatik izango den...

“ Zorrotzan dena oso hurbil dago, eta hori oso gustukoa dut. Ez dut ezer faltan auzoan, metroa izan ezik ”

Bai, euskal komunitatea oso ugaria da Argentinan. Euskal Herria ezagutzen zenuen hona iritsi aurretik?

Ez, eta herri honi buruz hitz egin zidaten arren, ezin irudikatu nolakoa den iritsi arte. Euskal jatorriko nomenklatura asko dago Argentinan. Nire abizenak berak ere jatorri euskalduna duela esan zidaten Argentinan ere bai, nahiz eta nik hemen ez ditudan Diarte asko ezagutzen.

Euskara ikastera animatu zara noizbait

Interesa piztu zitzaidan, baina ahalegin ekonomiko oso handia zen eta ahalik eta diru gehiena Buenos Airesera bideratzen nuen. Hala ere, gustatuko litzaidake hitz egin ahal izatea. Gurasoeekin euskaraz egiten zuten haurrak zaintzen aritu nintzen, eta esaldien eta oinarriko hitzen zerrenda egin nuen haiei esateko, eta etengabe galdetzen nuen hitz askoren esanahia.

Azkenik, noizbait berriro Argentinan bizitzea gustatuko litzazuke?

Finkatuta nago hemen, pozik, eta gizarte honen parte banaizela uste dut. Seme-alabak bisitan etortzea gustatuko litzaidake; eta nire bikotekideak erretiroa hartzen badu, agian denboraldi luzeagoak egin genitzake han, hiru aste igaro beharrean, baina hori baino ez.



Vía gráfica
viagraficazorrotza@gmail.com
Disenya



El 10 de Fray Juan
Pintxo askotarikoak, hamburgesak eta sandwichak
Bazkarriak eta afariak (erreserbatu behar da)
Ardo onak, konbinatu gozoak, Futbol, musika...
Fray Juan, 10 - Zorrotza - 48013 Bilbao

ZORROTZAKO MUSIKA ESKOLA



**Euskara
eta
musika
bat
eginez**

Auzoan jaiotako Kun-Kun elkarteak ahalbidetu du egitasmo honen sorrera. Proiektu honen helburu nagusiak “umeak musika munduan barneratu eta aisialdia musikaren bidez euskaraz eskaintzea” dira. Pandemiak sortutako arazoei aurre egin behar izan arren, erantzuna espero zuten baino hobea izan da. Ezagutu dezagun ekimen interesgarri honen nondik norakoak.

Testua: Ibai Barrios

Alarma egoera aitortu baino egun batzuk lehenago hastekoa zen auzoan ondu eta sortutako egitasmo hau. Baina Kun-Kun elkarteak ilusio handiz prestatutako proiektu hau ere bertan behera gelditu behar izan zen. Orain, zazpi hilabete geroago, ametsa errealtate bihurtu da nahiz eta oraindik egoera nahiko berezia izan. Urriaren 7an hasi eta hiruzpalau saio burutu eta gero berriro gelditu behar izan dute. Baina guztia ez da beltz kolorekoa.

Kun-Kun elkarteak osatzen duten 3 pertsonen esker, 3-7 urte bitarteko umeentzat zuzendutako musika eskola martxan jartzea lortu dute. Momentu honetan 33 ume daude, “espero zutena baino askoz gehiago”. Egoerak edukiera mugatzera behartu du. Hori dela eta, hiru talde antolatuta dituzte: astear-

teetan talde bakarra 17:15etatik 18:00etara (3-4 urte bitartekoentzat) eta asteazkenetan bi (txikien beste talde bat gehi 5, 6 eta 7 urte bitartekoentzakoa, guztia 17:15etatik 19:00etara). Klaseak Auzokan eskaintzen dituzte eta etorkizunean proiektua "handitzeko asmoa" dute.

Helburuei begira, musika irakasle euskaldun baten bitartez umeak munduan erritmo eta soinuaren bidez barneratzea da, hezkuntza musikalki minimoa eta instrumentu ezberdinak erabiliz. Garrantzitsuena "aisialdia musikaren bidez eskaini eta umeak beraien artean euskaraz aritzea" dira. Gainera, euskaraz dakiten gurasoei ere euskaraz aritzen dira bai irakasleak zein elkarteko kideak eta hori funtsezkoa da umeak musikaren bitartez euskaraz hezitzekotan.

Proiektua abian jarri zutenean ikusi zuten hutsune bat zegoela horren aldetik, batez ere "Txinbotarrak konpartsa pertsona helduagoentzat eskaintzen baititu tailerrak". Dena den, eta nahiz eta espreski musika eskola konbentzional bat ez izan, helburuak argi dituzte eta gainera ikasturte bukaeran auzoan ikuskizun bat egiteko asmoa dute, betiere pandemiaren eboluzioa eta nondik norakoak kontuan hartuta.

Horri lotuta, etorkizunari begira ere proiektu interesgarriak dituzte esku artean. Azaldu digutenez, asmoa dute "umeek 8 urte bete-tzean instrumentu zehatz bat (kitarra, alboka, etab) aukera dezaten", non klaseak "pertsonalizatuagoak" izango liratekeen (ikasle



“

Klaseak Auzokan eskaintzen dituzte eta etorkizunean proiektua "handitzeko asmoa" dute

“

Garrantzitsuena "aisialdia musikaren bidez eskaini eta umeak beraien artean euskaraz aritzea" dira

bakar edo bizpahiru pertsonaz osatutakoak). Hori bai, egitasmoaren filosofia eta helburuak berdinak izango dira, hau da, "umeen heziketa musikala euskaraz eskaintzea". Pozgarria beraz auzoko etorkizun musikala eta euskararen erabilera bermatuta egotea!



Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK

Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75
Telefonoa: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK

Zorrotza-Kastrexana errep. 75
Telefonoa: 94 442 17 12

MADNESS KAFETEGIA
Elena eta Javier
Zalbidetu ostatu, 5 - atzea
ZORROTZA
48013 BILBO

MADNES

Tel. 94 441 62 75



Zorrotza Kastrexana, 7
Telefonoa: 94 441 64 86



MAIALEN MIERA: Atleta

**“Luzera-jauzian eta
jauzi hirukoitzan trebeagoa
naiz korrika baino”**

17 urteko zorrotzarra dugu Maialen. Hamar urte zituela, herri-lasterketetan parte hartzen hasi zen eta egun Espainiako eta nazioarteko atletismo txapelketetan dabil, emaitza zoragarriak lortuz. Bere ibilbidea eta bere asmoak ezagutzeko deitu diogu.

Noiz eta nola hasi zinen atletismoa praktikatzen?

Istorio xelebrea dago horren atzetik. Ikastolan, Gorputz Hezkuntzako klasean harrapatzeko jolas batean ari ginela, esprint bat egin eta nire taldekide guztiak askatu nituen. Nonbait, irakasleak korrikarako dohai berezi bat nuela sumatu zuen eta nire gurasoeekin hitz egin zuen, lasterketetan parte har nezan animatzeko. Horrela, 2013an hasi nintzen herri lasterketetan parte hartzen, 10 urte nituela. Handik gutxira, gurasoak Zorrotzan atletismo pista zegoela jakitean, kiroldegira galdetzeraz joan ziren eta horrela, 2014an hasi nintzen Club Atletismo Bilbao taldean. Pentsa, artean ez nekien atletismoa zer zen ere!

Eta txapelketetan parte hartzen?

Atletismo taldean sartu eta berehala, Bizkaiako herri desberdinetatik hasi nintzen txapelketetan parte hartzen. Hasieran, ia denak bezala, lasterketan aritzen nintzen baina apurka-apurka jauzietan espezializatzen joan nintzen, modalitate horretan trebea nintzela ikusita.

Zein modalitatetan parte hartzen duzu eta zeintzuk dira zure markak?

Txapelketetan bi proba edo modalitatetan bakarrik parte har daiteke. Esaterako, nik 2018an zazpi probetako marka minimoak gaindituta nituen baina Espainiako txapelketa bi probetan bakarrik parte hartu nuen: jauzi hirukoitzean eta luzera-jauzian. Izan ere, proba horietan ditut nire markarik onenak: hirukoitzean, 12,35 m; eta luzerakoan, berriz, 6,02 m. Gero 100 metroko eta 200 metroko probetan ere parte hartu izan dut baina Espainian maila oso altua dago proba horietan eta ez daukat hainbeste aukerarik.

Ibilbide oparoa egina duzu han eta hemen go txapelketetan. Zeintzuk azpimarratuko zenituzke?

Nire lehenengo Espainiako txapelketa, 2017ko udan. Ez nuen ezer lortzerik espero eta bosgarren geratu nintzen, 24 lehiakideen artean. Hori sekulako bultzada izan zen niretzat. Izan ere, Espainiako hurrengo txapelketan, 2018ko neguan, berriz ere bosgarren geratu nintzen. Eta udan, lehena geratu





“ Atletismoa ez da soilik korrika egitea; are gehiago, ez da pertsona argalenzako bakarrik ”

nintzen Euskadiko taldearekin eta bigarrena, berriz, banakakoan. Gero, 2019ko neguan eta udan ere, bigarrena geratu nintzen.

Zer lortu behar da Espainiako txapelketetara joateko?

Modalitate edo proba bakoitzak marka minimo batzuk dauzka, kirolarien adina eta gene-roaren arabera. Adibidez, luzera-jauzian, 5 m eta 60 cm. Eta parte hartzaile kopurua handia bada, minimo hori igotzen dute. Azken batean unibertsitatera sartzeko puntua-zioarekin bezala egiten da. Halere, aurtan, Covid-19a dela-eta, parte hartzaile kopurua 12ra mugatu dute, beraz, zuzenean markarik onena dutenak aukeratu dituzte, minimorik ezarri gabe.

Inoiz parte hartu duzu nazioarteko txapelketa batean?

Bai, iaz, 2019an. Berez, Espainiako txapeldun eta txapeldunordeok Gazteriaren Joko Olinpikoetara joatekotan ginen, Azerbaijanera. Baina, azkenean, arazo bat egon zen eta oso kirolari gutxi eraman zituzten hara. Eta joan barik geratu ginenekin Espainia eta Portugalen arteko txapelketa bat antolatu zuten. Oso esperientzia aberasgarria izan zen niretzat.

Zer moduz joan da 2020. urtea?

Bada, egia esan, ez da nire urtea izan, lesio baten erruz. Euskadiko txapelketan emaitza onak atera nituen: zilarra luzera-jauzian eta brontzea 100 metrokoan. Oso sasoi onean nengoen Espainiako txapelketarako, gainera nire gainetik geratu ohi den neskak aurtan ezin zuen parte hartu, 18 urte bete dituelako. Irabazteko aukera gehiago nituen, baina astebate lehenago lesionatu nintzen, eta txapelketara iskitibialetan uzkurdura bat neukala joan nintzen. Korrika egiteak min egiten zidan, ez nintzen jauziak ondo egiteko gai... Lesioak irabazteko nituen aukerak erabat zapuztu zizkidan. Emozionalki kolpe handia izan da, horrelakoetan lur jota geratzen zara.

Zer ari zara ikasten? Zaila egiten zaizu ikasketak atletismoarekin uztartzea?

Batxilergoko 2. mailan nago, zientzietakoan, biosanitarioan alegia. Momentuz aurrera noa, arazorik gabe baina selektibitatearekin apur bat urduri nago. Lehen, DBHn edo Batxilergoko 1. mailan nengoenean ez zitzaidan gehiegi kostatzen ikasketak eta atletismoa uztartzea, baina orain bai, ordea; aldea nabaritzen da. Gainera, nire ikastolatik arratsaldeko bostetan ateratzen naiz eta orain Zorrotzako pista obre-

tan dagoenez, batzuetan Ermuan eta bestee-
tan Basaurin entrenatu behar izaten dut eta
denbora larregi ematen dut joan-etorrietan.
Astelehenetik ostegunera entrenatzen dut eta
larunbatetan txapelketak izaten dira, beraz, ez
daukat ikasteko apenas astirik.

Pandemia-egoeragatik zer nolako zailtasu- nak izan dituzue entrenatzeko eta txapelke- tetan parte hartzeko?

Maskarekin entrenatzea, batez ere beroa
denean, nahiko zaila da. Aldagelak itxita
daude, podium-ak ere kendu zituzten, gel hi-
droalkoholikoa etengabe erabili behar da...
Eta, arestian esan bezala, 12 partaide baino
ezin da joan Espainiako txapelketara. Orain,
gainera, ezin naiz Ermuara joan, mugikorta-
sun murrizketak direla-eta, bakarrik Basauri-
ra. Azken boladan ez naiz ia entrenatzen ari.
Espainiako hurrengo txapelketa martxoan
edo apirilean izango da, espero dut sasoian
jartzeko garaiz ibilitzea.

Uste duzu Zorrotzan atletismoa behar bes- te ezagutzen dela?

Lehen Zorrotzan gehiago entrenatzen nuen
eta auzoko jendea bazebilen, baina gehie-
nak Bilboko beste auzoetakoak ziren. Agian
egoera aldatu da geroztik. Halere uste dut
jendeak ez duela atletismoa ondo ezagutzen,
gehienek uste dute korrika egitea baino ez
dela. Are gehiago, ez da pertsona argalen-
tzako bakarrik, modalitate batean gorputz-
-mota jakin bat izatea onuragarria izan daite-
ke baina beste batean ez, alegia. Animatzen
dut bertoko jendea atletismo pista berria eza-
gutza eta kirol hau probatzera.



LABURREAN

Momentu gozo eta gazi bana?

Gozoa, nire lehen domina Espainiako
txapelketan, 2018an. Bat-batean 12
metroko marka jauzi hirukoitzean eta
6 metroko marka luzera-jauzian hautsi
nituen. Eta gazia, aurtengo Espainiako
txapelketa, lesionatuta joan nintzelako.

Zein da zure ametsa atletismoan?

Joko Olinpikoetara joatea. Esperientzia
ezinhobea litzateke.

Atletismoan zure erreferentea den kirolari bat.

Yulimar Rojas atleta venezuelarra.
Aurten, berarekin lehiatzeko aukera izan
dut, Copa de la Reinako txapelketan.

Zer egitea gustuko duzu geratzen zaizun denbora librean?

Nire lagunekin egotea, gehien bat. Eta
trikitixa jotzea, etxean.

Zer ikasi nahi zenuke datorren urtean?

Ufa, ez daukat argi oraindik.
Medikuntzarekin loturiko zerbait, agian.

ehbildu

**egiteko
beste
modu bat**



ASKABIDE
kultur elkarte
Zorrotza



Abenduak 16 asteartea

Liburu aurkezpena idazlearekin

16:30 Lápices liburudendan.

Toti Martínez de Lezea:

"Egurra S.A.".

* Segurtasun distantzia eta musukoaren erabilera derrigorrezkoa izango da. Sarbidea atean mugatua egongo da, eta uneko baldintza soziosanitario guztien arabera egingo da ekitaldi hau.

Zure elkartearen ekitaldiak hurrengo agendan (urtarrila-otsaila) iragartzeko, zmorrotz@gmail.com helbidera idatzi urtarilaren 8a baino lehen.

Toti Martínez de Lezea

Abenduaren 16an

16:30etik 20:00etara

Lápices Liburudendan euskal idazle ospetsua dugu bueltan, eta bere eleberriak ez du inor axolagabe utziko.

Untziola Kalea 8, 48013 Zorrotza

Tfnoa/ Whatsapp 944413730

Segurtasun distantzia eta musukoaren erabilera derrigorrezkoa da. Sarbidea atean mugatua egongo da, etorriko diren segurtasunerako.



Akuilari app-a

www.akuilari.eus

Hizkuntza eskubideen urraketak salatzen salatzen da Akuilari. Hizkuntza Eskubideen Behatokiarekin modu azkar eta eraginkorrean harremanetan jartzeko tresna da, mugikorrean deskargatu daitekeena. Kexak jartzeko balio du, euskara erabiltzeagatik kaltetuak izateagatik, adibidez, baina baita hizkuntza eskubideak errespetatzen dituzten erakundeen jarrera txalotzeko ere. Aplikazioaz gain, Behatokiak badu antzeko beste tresna bat: euskararen telefonoa. Honek aukera ematen du Internetez -euskararentelefonoa.com- edo telefonoz -948 146 172- kexa eta zorian mezuak igorri, eta hizkuntza-eskubideei buruzko kontsultak egiteko.

Botaba unibertsoa

<https://www.instagram.com/botabaunibertsoa/>

Zer esan jakin gabe gelditu zara inoiz ligatzeko orduan? Eta lagun bati adarra jotzerakoan, originaltasun eza sumatu al duzu inoiz? Proba, joko, zozketa eta lehiaketen bitartez zure euskara aberasteko aukera paregabea duzu. Kanean eta lagunartean erabiltzen diren lagunarteko esapideen erabilera modu dibertigarri eta dinamikoan sustatzeko dinamika da. @BotabaUnibertsoa Instagram kontuan astero hainbat euskal esamolde proposatzen dizkizugu. eta hilean behin zozketak antolatzen dituzte parte-hartzaileen artean. Gainera, esparru desberdinetako euskal pertsonaia erreferenteen kolaborazioa izango dute dinamika zabaltzen laguntzeko.



Durangoko azoka 2020

www.durangokoazoka.eus

Osasun larrialdi egoera honetan, Durangoko Azoka berezia antolatu behar izan dute; euskal kulturaz gozatzeko eta sektoreari babesa eta bultzada emateko. Inoiz baino gehiago euskal kultura behar dugu; eta euskal kulturak gu behar gaitu. Egin bat euskal kulturaren taupadekin! Nolako Azoka izango da? Denda birtuala, aurkezpeneak, kontzertuak, aurrez aurrekoak, streaming kanala... Abenduaren 4tik 8ra.

Euskara eskuz esku


www.euskaltzaindia.eus/eee

Euskaltzaindiak sortutako tresna digital berria da Euskara eskuz esku. Bertan, euskara batuaren arauak modu sinplifikatuan azaltzen dira, Ipar Euskal Herriko hizkeren berezitasunak azpimarratuz eta euskara batuak onartzen dituen Iparraldeko formak lehenetsiz. Gainera, euskara batua Iparraldeko hizkuntza-testuinguruan kokatzeko, euskarri batzuk kontsulta daitezke EEEen: lekukotasun-bideoak, ahoskeraren audio-grabazioak eta aurkezpen testu batzuk.



Dendaostekoak

Uxue Alberdi. Susa. 2020. 216 orrialde.



Doinua:

Saltarina da txepetxa eta

Pandemia batek astindu gaitu

zelako kolpe zakarra

kaleak hutsik giroa ilun

etxean egon beharra

zenbait familia gogor pairatzen

estuasun ta beharra

etsipenean sortu nahi nuke

itxaropenen pindarra


animoa ta indarra

Asier Urkiza



Dena: "Ezer sentitzeko"

(Autoekoiztua) 2020



Jostuna bata, brodatzailea bestea. 70eko hamarkada bukaeran ireki zuten denda, gurasoen etxean lan egi-teaz nekatuta, eta liburu politikoak eta diskoak gehitu zizkieten ordura arte erabilitako kakorratz, makina eta hariei. Marx eta mertzeria. Aitak esan zien emateko to-kia tailerrari eta almagenerari: "Funtsezkoea ezkutuan egi-ten da". Han josten dute geroztik, han brodatzen, han-txe gordetzen dituzte mozorroak egiteko oihalak, edo banatzaileari itzuli beharreko liburuak. Dendaostean entzun dute musika lagunekin, edo abortatzeko eskubi-dearen aldeko manifestazioetarako prestatu. Botoi bat josi liburu bat gomendatu artean, eta diskoak saldu txapelak brodatu ondoren. Eta, bitartean, uholdeak, tiro hotsa, kalea, ardoa, jaiotzak eta heriotzak. Denda baten kronika literarioa idatzi du Uxue Alberdik eta, bide batez, garai batena ere bai. Memoriaren dendaostetik

Bizkaiko kostaldera garmatza gaurko bidaia musikalak. Izan ere, Ondarroako Dena talde gazteak urrian "Ezer sentitzeko" euren lehenengo lana aurkeztu zuten. Gaztetasuna bai, baina diska osatzen duten 9 abestiak entzun ondoren heldutasun musikalak lortu dutela nabari zaie. Aitortu behar dut hirukotearen promo argazkia ikusita beste gauza bat espero nuela baina sekulako ezustea hartu nuen. Onerako gainera.

Halakoetan garrantzitsuen aurreiritzirik gabe jokatzeara (askotan izaten dugun akatsa) baina gehienetan oso zaila egiten zaigu, batez ere gaur egun musika kontsumitzeko ohiturak zeintzuk diren kontuan hartuta. Dena den, diskak hasieratik bukaeraraino dastatzeko liturgia ez genuke galdu behar. Talde guztiek merezi dute, hasiberriek batez ere. Eta Dena taldeak dakarren proposamen musikalak zinez interesgarria da. Gazteak helduen musika egin nahian? Nire ustez horretarako ez dago adinik, baizik eta bakoitzak bere identitate eta printzipioak izatea, besterik ez. Senti dezagun mugarik gabe.

Ibai Barrios

cafetxinbo****

Espezialitateak:

Tapak eta errazioak
Kanapeak



Abaro estrata, 10
Tel. 94 608 85 74



ZORROTZA F.C.
kirolarekin,
auzoarekin eta
euskararen alde!



**ESKAINITZA
PROGRESIBOETAN**

**ARMAZOIA +
KRISTALAK** GOI-
GAMAKOAK

265€

Sustapena indarrean +4,00 esferako eta
-2,00 zilindroko arteko graduazioetarako
RPS: 213/18

ibaretaluxury
OPTICA ★

Zure iritzia jakin nahi dugu. Bidaliguzu zure artikulua zmorrotz@gmail.com helbide elektronikora gaiaren laukian "iritzia" jarrita. Eskerrik asko!



Jekyll-Hide edo geure mundu paraleloak

Aspaldi erabaki nuen ez nuela berriro euskararen inguruan eztabaidatuko. Ez dakit zehazki zergatik, beharbada beti gorri-gorri amaitzen dudalako, mingaina ahalegin betean eta begiak sutan, airean hatzamar akusatzaile bat erakusten. Dr. Jekylltik Mr. Hidera dagoen ibilbidea jasan nezake ordu erdi batean...

"Bilbokoa izateko ze oso ondo egiten duzun euskaraz" batek edabe magikoaren lanak egiten dituela. Bai, dagoeneko igarriko zenuen, irakurle, aurreko batean urratu nuen zina.

Harira ez datorren lekuan, interesatzen ez zaigun zereginetan, horrelakoa bota du batek: "Ni euskarak batuak ez nau erreprezentatzen". Egiari zor, nik hemen jasotako esaldiak ez du hizkeraren ederra islatzen, ez eta esatearen jatoriasuna ere. Pertsona horrek ez zuen, ulertzekoa denez, batuaz ere esan. Batuaz, izan ere, nola adieraziko zuen bada (batua hain hizkera artifizial, plastikozkoa izanik) esanari darion mespretxua, nola harrapatuko zuen hitzek dakarten destaina? Bere hausnarketaren jarraipena parafraseatuz, zera esan du, bihotzetik irtetzen zaigun euskara euskalkiena dela, egunerokoan ez duela batua batere erabiltzen eta, ondorioz, ez duela euskara batua bere sentitzen.

Erretolikaren ondoren, bizpahiru lagun atera gara kontraerasoan. Gerlari umil honek lehenbizi erretagoardian geratzea erabaki du, behin bere buruari egindako promesa hura gogoan. Lehen bi erantzunak, gutxi-asko, ildo beretik joan dira. Norbere buruaren zuriketa. "Euskalkirik gabekook orduan zer egin, niri gustatuko litzaidake euskalkiak jakitea, Gasteizen ez dago euskalkirik". Eta abar. Luzea da aitzakia, konplexu eta autozigortza moten zerrenda. Litekeena da nire purrustadak ere debetari ganorazko aportaziorik egin ez izana. Ahalik eta tonurik atseginenean bota dut, ondoren datorrenaren bertsio light bat, beraz.

Hasteko, harrigarri samarra egiten zait gaur egun euskaldun batek batuak ez erabiltzea egunerokoan. Hedabideak, literatura, musika... Horiek denak erdaraz kontsumitzen dituen seinale. Etxeko/ herriko euskara ez ezik, aldaera estandarra ere bere sentitzeak ez lioke euskal hiztun bati beste munduko gatazkari ekarri beharko. Hitz gutxitan, euskarari kultur-hizkuntza izatera ukatzea da kontua. Hizkuntza gutxitu baten aferak hauek, bistan denez. Bigarrenik, euskalkirik gabekook batuaz hitz egiten dugu, ez estandarrean. Batua darabilgu, baina komunikazioaren eremu orotan, bihotzetik (zer zaharkitu hau, ez?) hitz egiteko ere bai. Hori horrela, batua ez litzateke eremu formalera mugatu beharko, hauxe estandarren esparrua baita, hain zuzen. Hirugarrenik, zenbait hala egiten duen arren, uste dut batuaz ari garenek ez dugula zertan euskalkia ikasi benetakotasun dominak jasotzeko. Azkenik, honezkeru batua euskararen beste hizkeratzat hartu beharko genukeelakoan nago, hau da, euskalkirik gabekoon euskalki gisa.

Bada, kito, itxuraldatzea bukatu da eta berriz ere trenpu ona berreskuratuta nago, Mr.Jekyll euskaldun zintzo, jator eta baketsu bihurturik.

Asier Urkiza

TXOKO FEMINISTA



Generoa gizarte bakoitzak emakumeei eta gizonezkoiei esleitzen dien ezaugarri multzoa da, haien sexu biologikoan oinarriturik. Patriarkatua gizarte-ordena bakarra eta nagusitatzat hartuz, eraikuntza sozial, historiko eta kulturala da, eta honen bidez, funtzio, jarrera, gaitasun eta muga desberdinak esleitzen zaizkie gizon eta emakumeei, naturak ezartzen duen ezaugarritzat hartuz. Bide batez, haien beharren asebetetze-maila eta banakako eta gizarte eskubide askoren gozamena baldintzatzen du. Generoaren kontzepzio tradizional honetan oinarriturik, gizartean eman eta erreproduzitzen diren

botere erlazioak sortzen dira, hauek genero arteko desberdintasunaren oinarria direlarik. Dolores Reguant-en arabera, patriarkatua egitura posible bakar gisa presentatzen den antolaketa soziala, politiko, ekonomiko, erlijioso modua da, gizonaren autoritate eta lidergoaren ideian oinarritzen dena. Horrela, gizarte organizazio patriarkalari eta generoen arteko desberdintasunari jarraipena ematen dioten erakunde desberdinetako diskriminazio praktika jarraituen multzoa etengabe gertatzen da. Gainera, lege, arau, balore eta erakunde multzoa aldaezina bezala "saltzen" da, egituraren aurka borrokatzea ezinezkoa izango balitz bezala presentatuz.

SALAKETA ARGAZKIA



Errepidea behin eta berriro harrotu egiten da

Arazoa ez da berria eta hainbatetan konpondu duten arren, argi dago orain arteko konponbideak ez direla behar bezalakoak izan. Azken konponketa lanak duela gutxi izan arren, Abaro estratako zoruak kotxeen joan-etorria jasan gabe jarraitzen du.



ZORROTZA HERRIGINTZAN



ZORROTZAKO BATZOKIA

Erreserbetarako telefonoa: 94 465 46 15
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)



Metroaren 4. linea Zorrotzatik hurbilago

2021ean metroaren 4. linearen informazio-azterlan berria aurkeztuko da. Alternatibetako batek Zorrotza trazadura horretan sartzea jasotzen duela jakin dugu. EH Bildurentzat nahitaezko baldintza da Zorrotza eta Basurtu linea horretan integratzea.

EH Bilduk Batzar Nagusietan eta Gasteizko Legebiltzarrean egindako lana fruituak ematen ari da. Bi erakundeetan aurkeztutako hainbat ekimenen bidez, EAJk eta PSEk osatutako gobernu-taldeak 4. lineako proiektu berri bat aurkeztu behar izatea lortu dugu. Proiektu berri bat, Bilboko hegoaldeko auzo gehiago sartzeko aukera ematen duena, eta, gainera, gizarte-eragileekin parte hartzeko prozesu baten bidez egingo dena.

2021. urtearen hasieran, metroaren 4. linearen informazio-azterlan berria aurkeztuko da, eta EH Bilduk duen aurrerapenean, esan dezakegu alternatibetako batek Zorrotza trazadura horretan sartzea jasotzen duela. EH Bildurentzat oso garrantzitsua da Zorrotza eta Basurtu auzoak linea horretan integratu ahal izatea; gainera, Alonsotegin kotxetegi berriak jartzeko aukera dago, eta ibilbide horren parte ere izan daiteke. Imajinatzen al duzue L4 Abando-Alonsotegi izeneko linea bat? Ba orain inoiz baino gertuago dago metroak Zorrotzarekin duen zorra kitatu ahal izatea.

Metroaren 4. linea auzora iristea, zalantzarik gabe, albiste bikaina izango litzateke, besteak beste, onura hauek ekarriko lituzkeelako:

- 10 minututik beherako maiztasuna.
- Konexioa L1, L2 eta L3rekin eta beste garraiobide batzuekin.

- Metro sisteman integratzea. Tarifa-sistema bera eta doako transbordoak lineen artean.
- FEVEren estazioa lurperatzeko proiektua baliatuz, guztiz berriztea linea hori.
- Auzoko hainbat zonalderen arteko hesi fisikoak ezabatzen ditu.

Bide onean gaudela esan dezakegu, baina hau lehen urratsa baino ez da. Informazio-azterlan aurkeztu ondoren, jendaurrean jarriko da alegazioak aurkezteko, eta EH Bildu adi egongo da beharrezkoak izango diren hobekuntza guztiak egin ahal izateko.

Informazio-azterlana hori onartu ondoren, presioa egin eta mobilizatu egin beharko gara, eraikuntza-proiektua lehenbailehen idatz dadin, bi urte baino gehiago iraun dezakeen lana baita.

Inork ez digu ezer oparitzeko, Zorrotzan ohituta gaude gauzak lortzeko borrokatu behar izatera. Ba orain da garaia tren pasagunearen lurperatzearekin batera metroa iristeagatik ere borroka egiteko. Ezin dugu tren hau galdu. Ez dezagun metroa pasatzen utzi.

Raúl Méndez Urigoitia
Bizkaiko EH Bilduko Batzarkidea
@rmurigoitia

Aldaprest proiektua martxan

Ekintza txikiak gehitzen direnean aldaketa txikiak sortzen dira, eta aldaketa txikien baturak pixkanaka mugitzen du mundua. Nolakoak dira zuen ekintzak?

Auzoka Komunitate Zentroan ospatutako osasunaren astearren baitan Gazteguneko gazteok planetaren osasunarekin lotutako proiektu bati hasiera eman genion, Aldaprest deiturikoa. Azaroaren 14an, Auzokan bertan burututako tailer batean, hainbat gazteren artean edukiontzi handi bat eraiki genuen material birziklatua erabiliz. Edukiontzi bat, bai! Eta, zertarako? Zorrotzako biztanleok bertan plastikozko botilak, tapoiak eta edarien latak botatzeko (guztiak aurrez garbituta, noski! Badakizue, birus madarikatua dela eta).

Edukiontzi honen helburua ez da auzotarrongaren plastikoaren erabileraren eta birziklapenaren inguruan kontzientzia sortzea bakarrik, baizik eta hondakinek beste bizitza bat eduki dezaketela erakustea. Zer egingo dugu bildutako hondakinekin? Artea sortu! Botilei, tapoei eta latei beste erabilera bat emango diegu; auzoari bizitza eman nahi diegu. Auzoko leku ezberdinetan mural batzuk sortuko ditugu, kalea apainduz eta kontzientzia sortuz.



Gazteok etorkizun orekatuago batean sinesen dugu eta badakigu zein den hori lortzeko bidea: Ezina Ekinez Egina!. Ekintza txikiak gehitzen direnean aldaketa txikiak sortzen dira, eta aldaketa txikien baturak pixkanaka mugitzen du mundua. Nolakoak dira zuen ekintzak? Nolako aldaketa sortzen duzue?.

Ekin gurekin! Nola? Auzokan dagoen edukiontzian aipatutako materiala utziz. Mila esker!



Iragar zaitez

ZM

ZORROTZ MORROTZ
aldizkarian!

Euskara sustatu
Zorrotzan!

Tarifak eta informazioa: zmorrotz@gmail.com

MESÓN LUNA

*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-haztegi propioa
Eguneko menua eta menu hitzartua*

Clara Campoamor, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es



David

Ezetz uste dut. Guztiok arauak beteta eta kontrolpean baditugu ez zen beharrezkoa.



Iker

Tabernak ixtea baino, hobeia izango zen egoera kontrolpean izatea eta distantziak mantentzea tabernen barruan. Ostalariek nabarituiko dute ekonomikoki.

Ostalaritza ixteko dekretua:

Neurri beharrezkoa
zela uste duzu?

Narrea Peña



Cristina

Hartzen ari diren erabakiek ez dute ez hanka ez bururik. Ez dugu aisialdirik baina gastatu, kontsumitu eta ekoiztu behar da. No-labait, herritarra erantzule egin da, eta ostalariak ere bai. Tabernetan baino ez gara kutsatzen?




Nahikari

Ez. Garbiketa, kontrol eta distantzia sozial gehien dagoen tokia dira tabernak! Ostalaritza ez da erruduna eta familia askoren diru-iturria da, nirea tartean.



Aritz

Jendeak nola jokutzen zuen ikusita, baietz uste dut. Gure auzoan ez da asko ikusi, baina hemendik kanpo erokeria izan da.



Lápices
LIBURVENDA

Untziola kalea, 8
ZORROTZA



Jai-Alai
kafetegia

Abato estrata, 12
94 490 12 59



DETAIL Car
TU COCHE - TU IMAGEN
Cuidado y limpieza de vehículos sin agua

**Ibilgailuen
Garbiketa Ekologikoa**

✓ URIH GABE ✓ ESHUZ ✓ ARGIZARIAREHIN

Fernando García Otero
Parking La Alhondiga ☎ 675.185.457
✉ alhondiga@detailcar.es

www.detailcar.es

Bilbon euskaraz



Bilbao

 www.bilbaoeuskaraz.eus

iKasi Mi Kasi!

**0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa,
ikastetxe publikoetan eta
Zorrotzatik irten gabe**

CEIP ZAZPI LANDA-ZORROZGOTI HLHI
Pinadia etxaldea, 6. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 442 48 75 • 📠 94 442 48 75
✉ sietecampas@gmail.com

CEIP ZORROTZA-FRAY JUAN HLHI
Ikastalde etxaldea, 12. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 442 00 21 • 📠 94 442 00 21
✉ 014159aa@hezkuntza.net

I.E.S. ZORROTZA b.h.i.
San Miguel auzunea, 10. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 439 33 34 / 688 861 374
☎ 94 439 97 41
✉ 015078aa@hezkuntza.net
www.ieszorrotzabhi.hezkuntza.net

AZAROAREN 20tik ABENDUAREN 4ra

EUSKARALDIA

ZORROTZAN EUSKARAZ BLAITU GAITEZEN!



Rola aukeratzean **gakoa** jarreraren dago

www.euskaraldia.eus

